

ARGAZKIAK: GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

**AMAIA NABEA**

Egitasmoaren arduraduna

«Mendata herri txikia bada ere, zer ikusia badagoela aldarrikatu nahi dugu; baita jendea erakarri ere»

sortu ziren (Emakumeen Base-
ria Landu taldea eta kirolzalee-
na), eta urtean zehar hamaika
zeregin eta ekitaldi antolatzen
dituzte biek ala biek.

Aterpetxearen funtzioa

«Bileretan argi geratu zen leku-
ren bat bilatu behar zela, eta
abade etxe hau erosi genuen.
Bertan, lehenik eta behin, den-
da eta liburutegia jarri genituen.
Dendan, Mendatakoak ez ezik,
Euskal Herri guztiko produk-
tuak ere saltzen ditugu», zehaz-
tu du. Baina ideiak ez ziren han
agortu, eta ekinaren ekinez,
bestelako egitasmoak ere era-
man dituzte aurrera: «Artape
aterpetxea ere sortu genuen». Baserriaren interpretazio zen-
troaren gainean dago aterpe-
txea; ohe txikiz eta armairuz
hornitutako espazioa. Ikasleak,
turistak eta Donejakue bidea
egiten dutenak omen dira ohiko
bezeroak. Nabeak azaldu due-
nez, «bai aterpetxea bai inter-

pretazio zentroa ekainaren
15ean jarri genituen martxan».

Hori horrela izanik, oraindik
ere hasiberriak direla dio ardu-
radunak, baina bada lortutako-
aren inguruko balorazioa egite-
ko gai: «Oso-oso gustura gaude
egin dugunarekin, pixkana gure
helburua betetzen ari dela irudi-
tzen baitzaigu; hots, pausoz
pauso Urdaibairen izatea sal-
tzen ari garela uste baitugu.
Mendata herri txikia bada ere,
zer ikusia badagoela aldarrikatu
nahi dugu, baita jendea erakarri
eta bertako gazteek hemen ge-
ratzeko adina arrazoi badutela
adierazi ere. Urte hauetan guz-
tietan ekintzak eta ibilaldiak an-
tolatu ditugu, liburuak argitara-
tu ditugu, liburutegia, informazio
gunea, denda, interpretazio
zentroa eta aterpetxea osatu di-
tugu eta pozik gaude horrekin».

Haatik, oraindik ere ibilbide
luzea omen dute betetzeko:
«Diru laguntzak dira gure ara-
zorik funtsezkoenak, baina
ideiak badauzkagu eta dirua
lortuz gero, erronka ugari ditu-
gu begien aurrean. Espazio
handiagoa behar dugu, eta zen-
bait gauza beste eraikin batera
eramatekotan gaude; erakuske-
tarako entzumenezko gidak ja-
rri nahi ditugu; eta aterpetxeari
dagokionez, neguan ere udan
bezainbesteko mugimendua
izan nahiko genuke». Lekuan
lekuko garapenerako ardura-
dun honek Mendatak eskain-
tzeko asko duela uste du, zinez,
eta lan egiteko prest dago.



Sukalde bat atontzeko modua zeharo aldatu dela garbi dago. Bazter batean su baxua, gainean eskuz garbitutako arropak eta porzelanazko platerak. Egurra zen baserriko sukaldeetan lehengai nagusia.



Lo egiteko lekua ere ezberdina da. Aspaldiko umetxo baten sehaska dugu erakusketako osagaietako bat —ezkerrean—. Eskuinaldeko argazkietan, aldiz, aterpetxeak bidaiari nekatuei eskaintzen dizkien oheak ditugu.



Hainbat eta hainbat elementu biltzen dituen logela atondu dute: ohe handi bat, sehaska, arropa, errezelak, hormetako apaingarriak eta papera. Osagaiak ikusteaz gain, azalpen orokorra izango du hara joaten denak.